


Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Plastikozko dirua Bilbotik sartu zen Espainiako Estatura



JL_IBARRURI



KARL_MARIE-CC BY SA

BILBO, 1971. Banco de Bilbao Bank-Americard kreditu txartela –gero Visa izango zena– bezeroen artean banatzen hasi zen. Erresuma Batuan izan ezik, ordura arte European ez zen halakorik erabiltzen, eta hura izan zen Espainiako Estatuaren lehen kreditu txartela. Produktuaren sustapen kanpainan ahalegin handia egin eta gero, urte gutxian, Espainia munduko lehen postuetan zen txartelen erabilera.

Lehen kreditu txartelak hogeita urte lehenago erabiltzen hasi ziren AEBetan. Baina ideia askoz lehenago bururatu zitzaion Edward Bellamy idazleari. 1887ko *Looking Backward* nobela utopikoan, ordaintetako egiteko etorkizuneko txartelak erabiliko zirela aurreikusitua zuen, eta izenean ere asmatu zuen: liburuan *credit card* (kreditu txartel) terminoa hamaika aldiz erabili zuen. 1920ko hamarkadatik

Ezkerrean, Banco de Bilbao zenaren Bilboko egoitza nagusia. Banketxe hura izan zen Espainian kreditu txartelak erabiltzen lehena. Beheko argazkian, AEBetako kreditu txartel zaharra.

aurrera, esku-dirutan ez ordaintzeko hainbat txartel sortu ziren, baina enpresa jakinetan edo salgai jakinak ordaintzeko soilik erabil zitezkeen.

1949an Frank Macnamarak negozio afaria izan zuen New Yorkeko Major's Cabin Grill jatetxean. Kontua ekarri ziotenean diru zorroa etxean ahaztu zuela konturatu zen. Nola edo hala ataka horretatik irtetea lortu zuen, baina esku-dirua ordezkatzeko zuen zerbait behar zela erabaki zuen, eta 1950ean Diners' Club txartela sortu zuen. Horixe da, behintzat, Diners' Clubeko ordezkariak kontatzen duten historia. Kartoizko txartel hura –plastikozkoa American Expressek merkaturatu zuen hurrengo hamarkadan– askotariko salgaiak ordaintzeko balio zuen lehen txartela zen, eta urtebetean 20.000 bezero lortu zituen.

1958an Amerikako Bankuak sekulako bultzada eman zion produktuari. Marketing taktika bortitz eta eraginkorra erabiliz, posta bidez 60.000 BankAmericard txartel bidali zituzten Fresnoko (Kalifornia) biztanleei, gero Banco de Bilbaok banatuko zituen txartel berak.

Horrenbestez, lehenik AEBetan eta gero gurean, ia konturatu gabe ordaintzeko ohitura arriskutsuaren historia hasi zen. Duela bi urte, 2009ko apirilaren 23an, Barack Obama banketxe nagusietako kreditu txartelen arduradunekin bildu zen, *Time* aldizkariaren hitzetan, “plastikoarekiko menpekotasuna kontrolatzeko”.

Arrastoak

Emakume sainduak eta bekatariak Erdi Aroan

GEHIAGO DAGO ZUGAN. Emakumeari buruzko irudiak Erdi Aroan izenburuko erakusketa dago ikusgai Bilboko Arte Eder Museoan, maiatzaren 15era bitartean.

XIII. mendetik XV.era bitarteko emakumei buruzko 50 artelan bildu dituzte (beheko argazkian, horietako bat). Arte-komisario independente eta proiektuaren arduradun zientifikoa den Corinne Charlesek lau urte baino gehiago eman ditu gaiari buruz ikeritzen eta lanak aukeratzeko. Hala, erakusketako piezak Erdi Aroko gizartearen, Elizak gobernatutako gizartearen, gailendu ziren bi emakume ereduaren ispilu dira. Batetik, zenbait pieza, Ama Birjinaren irudiak, esaterako, idulkien gaineko emakume miretsien eredu dira. Bestetik, emakume bekataria, erruduna ere agertzen da artelanetan, adibidez, literatura satirikoaren ilustrazioetan. Eta rol itxi horietan oinarritu dira erakusketari intentzioz beteta-ko izenburua jartzeko.



BILBOKO ARTE EDER MUSEOA